



Zer egingo zenukete libre dagoen gelarekin?

euskaragara.net



B2 maila

B2 MAILA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien fitxa).

Azterketariei argazkien fitxa bana eman eta egitekoa zein den irakurri. Elkarri begira egongo dira azterketariak, eta aztertzailea pixka bat atzerago jarriko da. Fitxa mahai gainean egongo da, azterketariek ondo ikusteko moduan. Minutu erdia izango dute argazkiak ikusteko eta pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu. Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu ...
Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

Zer egingo zenukete libre dagoen gelarekin?

euskaragara.net

Elkarrekin bizi zarete pisu batean. Gela bat libre daukazue eta ez dakizue zer egin gela horrekin. Jarraian, 6 aukerra dituzue. **Bion artean hitz egin, aukera bakoitzaren alde ona eta txarrak adierazi eta adosten saiatu**

Galdera osagarriak:

- Zer iruditzen zaizue hainbeste etxebizitza hutsik egotea eta jendea etxe baten beharrean eago?
- Zer da hobea: etxea alokatu ala erosi? Zergatik?



Zertan egingo zenukete lan asteburuan?



euskaragara.net

B2 maila

B2 MAILA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien fitxa).

Azterketariei argazkien fitxa bana eman eta egitekoa zein den irakurri. Elkarri begira egongo dira azterketariak, eta aztertzailea pixka bat atzerago jarriko da. Fitxa mahai gainean egongo da, azterketariek ondo ikusteko moduan. Minutu erdia izango dute argazkiak ikusteko eta pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu. Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu ...

Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

Zertan egingo zenukete lan asteburuan?

Ikasleak zarete. Datorren udan atzerrirako bidaia egin nahi duzue. Hori dela eta, asteburuetan lan egitea erabaki duzue. Fitxan hainbat lanen irudiak agertzen dira. Horietarako zuen gaitasunak eta lanaren zailtasuna kontuan hartuta, zertan lan egingo duzue? Zertan ez duzue lan egingo? Zergatik?

Bion artean hitz egin, aukera bakoitzaren alde ona eta txarrak adierazi eta adosten saiatu

Galdera osagarriak:

- Zer iruditzen zaizue lana eta ikasketak batera eramatea?
- Zertan erabili zenuiten lehen soldata? Zertan erabiliko zenuke lehen soldata? Azaldu.
- Zergatik aukeratzen dituzte jende gaztea arropa- zein janari-frankiziek?

2. MAILA

3. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien orria).

- Ikasleei argazkien fitxak eman eta zer egin behar duten irakurri (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean dituztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleek jardun bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu.
- Behar izanez gero, beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

Zerk kezkatzen ditu gehien gazteak?

Fitxan, gizartean kezka sortzen duten hainbat gairi buruzko irudiak ageri dira. Horien artean zein da, zuen ustez, gazteak gehien kezkatzen dituen? Zergatik? Eman dezagun gazteei zuzendutako mahai-inguru baterako gai horietatik bi aukeratu behar dituzuela. Zein aukeratuko zenukete? Zergatik? Zuen iritzia eman, bakoitzak berea. Ondoren, **eztabaidatu eta adosten saiatu**.

GALDERA OSAGARRIAK

- Zenbaiten ustez gaur egungoak ez dira gazte konprometituak. Beste zenbait, ordea, ez dago horrekin ados. Zein da zuen iritzia?
- Argazkietan agertzen diren gaietatik zeinek kezkatzen zaituztete zuek gehien?
- Gaurko egoera ekonomikoak, epe laburrean, onera egingo duela uste duzue? Zergatik?
- Nola aldatu du krisiak zuen bizimodua?



Egoera ekonomiko eta politikoa



Etxebizitza



Pobrezia eta marjinazioa

euskaragara.net

Zerk kezkatzen ditu gehien gazteak??





Zer egin horrelako eguraldi beroarekin?

euskaragara.net



B2 maila

B2 MAILA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien fitxa).

Azterketariei argazkien fitxa bana eman eta egitekoa zein den irakurri. Elkarri begira egongo dira azterketariak, eta aztertzailea pixka bat atzerago jarriko da. Fitxa mahai gainean egongo da, azterketariak ondo ikusteko moduan. Minutu erdia izango dute argazkiak ikusteko eta pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu. Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu ...

Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

Zer egin horrelako eguraldi beroarekin?

Asteburua da. Eguraldi beroa, sargoria. Biharko tenperatura 42 gradukoa izango dela iragarri dute. Bihar, igandea, plan bat egin nahi duzue, baina zer egin horrelako eguraldi beroarekin? Zer ez zenukete egingo? Zergatik? Fitxan ageri diren irudietan zenbait aukera dituzue erabakia har dezazuen. **Bion artean hitz egin, adostasunak eta desadostasunak adierazi eta adosten saiatu**

Galdera osagarriak:

- Zein urtaro nahiago duzue? Zergatik?
- Zertan dira desberdinak astebururako planak neguan eta udan?
- Zer nahiago duzue, eguraldi hotza ala beroa? Zergatik?

ZER EGINGO DUGU LARUNBAT ARRATSALDEAN ...



euskaragara.net Zer egin horrelako eguraldi beroarekin?



B2 maila

B2 MAILA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien fitxa).

Azterketariei argazkien fitxa bana eman eta egitekoa zein den irakurri. Elkarri begira egongo dira azterketariak, eta aztertzailea pixka bat atzerago jarriko da. Fitxa mahai gainean egongo da, azterketariak ondo ikusteko moduan. Minutu erdia izango dute argazkiak ikusteko eta pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu. Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu ...

Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

Zer egin horrelako eguraldi beroarekin?

Asteburua da. Eguraldi beroa, sargoria. Biharko tenperatura 42 gradukoa izango dela iragarri dute. Bihar, igandea, plan bat egin nahi duzue, baina zer egin horrelako eguraldi beroarekin? Zer ez zenukete egingo? Zergatik? Fitxan ageri diren irudietan zenbait aukera dituzue erabakia har dezazuen. **Bion artean hitz egin, adostasunak eta desadostasunak adierazi eta adosten saiatu**

Galdera osagarriak:

- Zein urtaro nahiago duzue? Zergatik?
- Zertan dira desberdinak astebururako planak neguan eta udan?
- Zer nahiago duzue, eguraldi hotza ala beroa? Zergatik?

EGOERA:

Gaur larunbata da eta arratsalderako plana antolatu nahi duzue. Zer egin? Nora joan?... Beraz, erabakitzeko bildu zarete eta hurrengo argazkiak lagungarri izango dituzue. Bakoitzak pentsatu beharko du argazkietan agertzen diren aukeren artean zein hautatzen duen eta bestea konbentzitzen saiatuko da.

Galdera osagarriak:

- Zein da aukerarik onena? Zergatik?

Zein ez zenuke inoiz ere aukeratuko?

